



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/11/09

## **Aldundiak konponbide barriak aztertuko ditu 2018an, trafikoak etxebizitzetan eragiten dauen zarataren arazorako**

Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordean gaur egin da 2018ko Aurrekontuen Proiektuaren bigarren informazio jardunaldia. Deitutako hiru saioetako batean, Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Foru diputatuak, datorren urtean bere sailak, errepideko trafikoak sortzen dauen zarataren kontrako “ekimen barriak” aztertuko dituala iragarri dau. Holan, Bere sailaren aurrekontuak “100.000 euro” aurreikusiko ditu gaur egun biztanleak dagozan lekuetatik igarotean zarata kutsadurea murrizten daberen pantailak instalatzea gaindituko daberen alternatibak eta konponbideak aztertzeko. Hori da Ekonomia eta Lurralde Garapenerako sailaren kontuetan jasoten dan barrikuntzetako bat. Sail horretako kontuek %5 handituko dira, 269 milioi eurora helduz.

Hazkunde horregaz “beste bultzakada” bat emongo jako inbertsino publikoari, “58 milioi eurogaz”, “ekonomiaren hazkunde ziklo honi laguntzeko” helburuz. Kopuru horren barruan, errepideetako azpiegiturretan (47,8 milioi) eta ezagutza eta barrikuntza azpiegiturretan (10,2 milioi) egingo diran inbertsinoak sartzen dira. Horrez gain, 2018ko kontuek “pertsianea zabalik” eukiten jarraitzeko eta Foru erakundeak azpiegituren arloan dituan konpromisoak beteteko balioko dau, ekonomiaren garapenerako funtsak handitzen laguntzeaz aparte. Azken horreen artean, Pradalesek “ekintzailatzagaz, barrikuntzagaz, enpresen nazinoartekotzeagaz, talentuagaz eta kanpoko sustapenagaz erlazioautako ekimenak” aitatu ditu. Horreek guztiek %23,5eko hazkundera ezagutuko dabe, eta 38,4 milioi mobiduko ditue, Bizkaiaren lehiakortasuna hobetzeko.

Errepideen kudeaketari jagokonez, Pradalesek azpimarratu dau Aldundiak 325.000 euro erreserbauko dituala Bizkaiko Errepideen eta Txirrindularientzako Bideen LSPak aurrera eroateko. Atal horren barruan azpimarratzekoak dira, inbertsinoen bolumena dala eta, Aldundiaren esku dagozan errepideen kontserbazinora bideratuko diran 45 milioi euroak. Inbertsinoen artean, Santurtziko bidegorria egitea (milioi bat euro hartuko ditu), Kadaguako bide-zubiaren konponketea (430.000 euro) edo motozaleen babeserako sistemak (500.000 euro) aitatu ditu diputatuak.

2018an egin behar diran obren artean, Pradalesek Ermuko saihesbidearen eta Autzaganeko tunelen amaiera azpimarratu ditu, 16,2 milioiko inbertsinoagaz, eta baita Kukularrako lotunean egin behar diran jarduketak (3,5 milioi lehen faserako), Ondarroako zubia barriztetako lanak (400.000 euro), lotunerako bidea Bermeoko saihesbidean (800.000 euro), eta Kadaguako ardatza Karrantzarekin lotzen dauen BI-630 errepidea hobetzeko azterlanak eta Itsasadarraren sarea (1,1 milioi) be.

Beste alde batetik, Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Foru diputatuak azpimarratu dauenez, ekitaldi barrian Aldundiak 10,3 milioi euro inbertiduko ditu ezagutza eta barrikuntza azpiegiturretan. Pradalesek ekintzailatzaren “hub”-era zuzendutako 3 milioi euroak, Ezkerraldeko/Meatzaldeko Teknologia Parkearen urbanizazinarako 2,5 milioi euroak, AICrako 3 milioi euroko inbertsinoa eta EIC- Energy Intelligence Center izenekora zuzendutako 1,7 milioi euroko partidea sartu ditu inbertsino horreen artean.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Foru diputatuak bere esku-hartzean azpimarratu dauen beste gauza bat, bere sailak Bizkaiko enpresa txikiei eta ertainei emongo deuten laguntza handia izan da, 3i, Elkarlanean eta lehiakortasuna bultzatzeko programen bidez. Programa horreek 11 milioi euroko inbertsinoa hartuko dabe. Barrikuntzari, inbertsinoari eta nazinoartekotzeari erabateko laguntzea emoteko 3i programak jasoko dauen diru-kopuruak gora egingo dau aurten be, 4,3 milioi eurora helduz.

Nazinoartekotzeagaz eta talentuagaz erlazionautako arloak 9,5 milioi euro inguru jasoko ditu; bertan jasoten dira, beste batzuen artean, enpresa txikiei eta ertainei zuzendutako nazinoartekotze eta laguntza programak, partzuergoei emongo jaken laguntzea, nazinoartera zabaltzeko, “Doing Business in Biscay” programea, inbertsino barriak erakarteko zerbitzu integral moduan, startup-ak, inbertsino funtsak... Gainera, ekitaldi barri horretan 2,3 milioi euro zuzenduko dira talentuari eta bikaintasunari laguntzeko hainbat ekintzetara eta programetara.

Imanol Pradalesek balioan jarri dau Bizkaia, turismoaren jomuga moduan sustatzeari emoten jakon bultzada handia, 4,5 milioi euro hartzen dituen partidakaz. Kopuru horretatik, 700.000 euro, datorren urtean Bilbon egingo diran kultur eta kirol arloetako nazinoarteko ekitaldietara bideratuko dira.

#### 85,2 MILIOI BIZKAIBUSERAKO

Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako diputatuak azaldu dauenez, 134 milioi eurokoa izango dan bere saileko 2018ko aurrekontuaren zati garrantzitsuena Bizkaibus zerbitzuaren mantentze lanek eroango dabe beste urte batez. Partida horrek %1,43ko hazkundera izango dau, 85,2 milioira helduz.

Bere esku-hartzean, Aldundia, Bizkaibusen markesinen diseinu barria lurraldetik zabaltzen hasiko dala baieztu dau Reyesek. Horretarako 550.000 euro bideratu dira, joan dan uda baino lehen kalean instalau zan prototipoaren “funtzionaltasuna egiaztatu” eta gero. Sailaren proposamenen artean Bizkaibusen webgunea eguneratzea eta barriro diseinetzea dago.

Garraio sailaren beste ekarpen handienetako bat garraio publiko azpiegituretara dago zuzenduta. Horri jagokonez, Aldundiak 41 milioi euroko partidea erreserbau dau Bizkaiko Garraio Partzuergorako, aurreko ekitaldian baino %6,16 gehiago, eta Bilboko Metroaren ustiapenak sortutako galerea ordaintzera eta Bilboko lur azpiko garraiobidea hobetzeko beharrak egitera egongo da zuzenduta. Garraio publikoaren koordinazioaren arloan, Aldundiak aurrera jarraituko dau Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzaren lanak bultzatzen. 265.000 euro bideratuko dira 2017an sortu zan erakunde horretara.

Bilbo Metropolitarraren LPPa barriztetako prozesuak 205.500 euro eroango ditu. Reyesek bere esku-hartzean aurreratu dauenez, “une honetan” bukatzen ari da Aurrerapeneko Dokumentua. Dokumentu horretan lurralde ereduaren lehenengo hipotesia definiduko da.

Lurraldearen Antolamenduaren arloan “bikoiztu egingo dira” udalerriei emoten jakezan laguntzak, euren urigintza arloko planteamentua egokitzeko eta egiteko, 500.000 euroko horniduragaz. Atal horretan azpimarragarria da urigintza arloko planteamentua erregistretako aplikazioaren garapena. Aplikazio horren bitartez, edozein pertsonak urigintza planak kontsultau ahal izango ditu, jagoken Udaletxera edo Aldundira hurbildu behar barik.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA

Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, bere aldetik, 56.461.000 euroko aurrekontua eukiko dau, 2017an baino %21,71 gehiago. Zenbateko hori, batez be, Foru Administrazioaren “pertsianea altxetako” erabiliko da, “alde batetik herritarrei eta bestetik udalei zerbitzu gehiago eta hobeak” eskiniz, Ibone Bengoetxea titularrak laburbildu dauenez.

Gehien “haziko dan” partidetakoko bat informazioaren artxiboari, segurtasunari eta tratamenduari zuzendutakoa izango da, 2017ko 950.000 euroetatik 2018ko 1.925.000 eurora pasauko da-eta. Diru kopuru horren barruan, 550.000 euro balioko dituan errobot igotzailea erostea jasoten da, Gangurengo administrazio artxibategirako.

Aldundiak “17,5 milioi eurotan” baloratu dau foru administrazioa modernizetako egin behar dan esfortzua, BAT (Bizkaiko Azpiegitura Teknologia) sistemaren ezarketa barruan hartuz. Sistema horren barruan sartzen dira, beste batzuen artean, egoitza elektronikoa, sarreren kudeatzailea, dokumentuen kudeatzailea, tramitazioarako motorra eta artxibategi elektronikoa.

Bengoetxeak zuzentzen dauen sailak esfortzu handia egingo dau datorren urtean Aldundiaren parke mobikorra hobetzeko. 962.000 euro inbertiduko ditu lur orotako 32 ibilgailu erosteko; 340.000 euro suhiltzaileentzako kamioi zisterna bat eskuratzeko; eta beste 123.000 euro “Unimog” ibilgailu bi egokitzera bideratuko dira.

Diputatu andreak larrialdietako zerbitzuen instalazioak modernizetako egingo dan esfortzua be azpimarratu dau. Holan, 2018an, Zallako suhiltzaileen parkea eregiteko beharrak hasiko dira (900.000 euro), Arratzuko parkearen proiektua idatziko da (60.000 euro) eta Larrialdien Kudeaketarako Zentro Integrala jarriko da martxan (240.000 euro). Gainera, beste “175.000 euro” egongo dira suhiltzaileen foru zerbitzuko beste zentro batzuetan hainbat hornidura eta hobekuntzarako obrak egiteko.

Horrez gain, Aldundiak Bizkaiko udalerriei euskarria emoten jarraituko dau. Horretarako 4.535.000 euro bideratuko dira Biscaytik Fundaziora. Gainera, “aurrera jarraituko da” udalerrien saneamendua bultzatzera zuzendutako partidakaz (750.000 euro) eta herri txikietan azpiegiturak egiteko diru-laguntzetara bideratutakoagaz (2 milioi), 2018an udalerrian finantza egoerak hobera egingo dauela aurreikusten dan arren.

Bengoetxeak Aldundi osoko I. kapitulua (Beharginak) be aitatu dau. Horreen soldata masea “%2,81” handituko da, “203,2 milioi eurora” ailegau arte. Atal horretan, Bengoetxeak adierazo dauenez, azkenengo hiruhileko honetan 2017ko EEPa onetsiko da. Eta datorren urterako, Aldundiak beste enplegu eskaintza publiko bat kaleratzea aurreikusten dau.

Podemos Bizkaiaren erantzun-eskeari erantzunez, eta aurreko agerraldi batean, diputatu andreak adierazo dau daborduko gauzatuta dagola Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren aurrekontuaren 2017ko aurrekontuaren “%63,5a”.

## BIHAR, AZKENENGO INFORMAZINO JARDUNALDIA

Aurrekontuen inguruko informazio batzordeak bihar, barikuan, amaituko dira. Horreen ostean, Bizkaiko Batzarretako Mahaiak zuzenketa-eskeak aurkezteko epealdia ezarriko dau (15 eguneko). Zuzenketa-eskeak aztertu eta gero, Gernikan egingo dan lehenengo osoko batzarra



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

deituko da, testu osoaren aurrean aurkeztu diran zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko. Osoko batzar horren ostean, eta beharrezkoa bada, zuzenketa-eske partzialak eztabaidatuko dira batzordean. Bizkaiko kontuen Batzarretako izapidetzea abenduaren bukaeran amaituko litzateke, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordetik igaro ostean geratzen diran zuzenketa-eske partzialak aztertuko dituan beste osoko batzar batez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
09/11/2017

## **La Diputación estudiará en 2018 nuevas soluciones técnicas frente al ruido que genera el tráfico**

Hoy, se ha celebrado en las Juntas Generales la segunda jornada informativa del Proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2018 en el seno de la comisión de Economía y Hacienda. En una de las tres sesiones convocadas, el diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha anunciado que el año próximo su departamento estudiará “nuevas iniciativas” técnicas contra el ruido que genera el tráfico viario. En este sentido, el presupuesto de su departamento consignará “100.000 euros” para analizar alternativas y soluciones que vayan más allá de la instalación de pantallas que mitigan actualmente la contaminación acústica a su paso por zonas habitadas. Esta es una de las novedades que se recogen en las cuentas del departamento de Desarrollo Económico y Territorial que crece un 5% y alcanza los 269 millones de euros.

Tal aumento presupuestario servirá para ofrecer un “nuevo impulso” a la inversión pública con un total de “58 millones de euros” con el objeto de “acompañar al ciclo de crecimiento económico”. En este montante, se incluyen inversiones en infraestructuras viarias (47,8 millones) y en infraestructuras de conocimiento e innovación (10,2 millones). Las cuentas de 2018 servirán para mantener, además, “la persiana abierta” y cumplir los compromisos de la institución foral en materia de infraestructuras, así como para incrementar los fondos de desarrollo económico. En estos últimos Pradales ha incluido “iniciativas de emprendimiento, innovación, internacionalización empresarial, talento y promoción exterior” que experimentan un crecimiento del 23,5% y movilizarán un total de 38,4 millones de euros para mejorar la competitividad de Bizkaia.

En materia de gestión de carreteras, Pradales ha destacado que la Diputación reservará 325.000 euros para desarrollar los PTS de Carreteras de Bizkaia y de Vías Ciclistas. En este capítulo, destacan por su volumen inversor los 45 millones para la conservación de las vías forales. Entre las inversiones, el diputado ha citado también la ejecución del bidegorri de Santurtzi (absorberá 1 millón de euros), la reparación del viaducto del Cadagua (430.000 euros) o los sistemas de protección para motoristas (500.000 euros).

Entre las obras a finalizar en 2018, Pradales ha destacado la finalización de la variante de Ermua y de los túneles de Auzagane, con una inversión de 16,2 millones. Y entre las nuevas, Pradales ha citado las actuaciones en el enlace de Kukularra (3,5 millones para la primera fase), la rehabilitación del puente de Ondarroa (400.000 euros), un vial de conexión en la variante de Bermeo (800.000 euros), y los estudios para mejorar la BI-630 que conecta el eje del Cadagua con Karrantza, y el mallado de la Ría (1,1 millones).

Por otra parte, el diputado de Desarrollo Económico y Territorial ha subrayado que en el nuevo ejercicio, la Diputación invertirá 10,2 millones de euros en infraestructuras de conocimiento e innovación. Pradales ha incluido en esas inversiones los 3 millones de euros destinados al “hub” de emprendimiento, los 2,5 millones de euros para la urbanización del Parque Tecnológico de Ezkerraldea/Meatzaldea, la inversión de 3 millones para el AIC y una partida de 1,7 millones de euros para el EIC- Energy Intelligence Center.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

También ha destacado el diputado foral en su intervención el apoyo decidido del departamento a la innovación de las pymes de Bizkaia a través de los programas 3i, Elkarlanean y el de impulso a la competitividad que suman una inversión de 11 millones de euros. El programa 3i de apoyo integral a la innovación, inversión e internacionalización vuelve a ver incrementada su dotación hasta los 4,3 millones de euros.

El área de internacionalización y talento sumará cerca de 9,5 millones de euros; contempla, entre otros, programas de internacionalización y apoyo a pymes, el impulso de consorcios para la internacionalización, el programa “Doing Business in Biscay” como servicio integral para la atracción de nuevas inversiones, startups, fondos de inversión... Además, este nuevo ejercicio se destinarán 2,3 millones de euros para distintas acciones y programas de apoyo al talento y la excelencia.

Imanol Pradales ha puesto en valor el gran impulso que se da a la promoción integral de Bizkaia como destino turístico, con partidas que suman 4,5 millones de euros. De ellos, 700.000 euros servirán para cubrir los eventos internacionales culturales y deportivos que se desarrollarán en Bilbao el año próximo.

#### 85,2 MILLONES PARA BIZKAIBUS

El diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, por su parte, ha explicado que la parte más sustancial del Presupuesto para 2018 de su Departamento, que alcanza los 134 millones, se la lleva, un año más, el mantenimiento del servicio Bizkaibus que incrementa su partida en un 1,43%, alcanzando los 85,2 millones.

En su intervención, Reyes ha confirmado que la Diputación comenzará a extender por el territorio el nuevo diseño de marquesinas de Bizkaibus. Para tal fin se destinarán 550.000 euros, una vez que “se ha comprobado la funcionalidad” del prototipo instalado en la calle antes del pasado verano. El departamento incluye entre sus propuestas para 2018 la actualización y rediseño de la página web de Bizkaibus.

Otra de las grandes aportaciones del departamento de Transportes va dirigida a infraestructuras de transporte público. En este sentido, la Diputación ha reservado una partida de 41 millones de euros para el Consorcio de Transportes de Bizkaia, que supone un incremento del 6,16%, y que va dirigida a pagar el déficit de explotación de Metro Bilbao y a labores de mejora en el suburbano bilbaíno. En materia de coordinación del transporte público, la Diputación seguirá impulsando los trabajos de la Autoridad Movilidad de Bizkaia, creada en 2017, a la que se destinarán 265.000 euros.

Por su parte, el proceso de renovación del PTP del Bilbao Metropolitano se lleva 205.500 euros. Reyes ha avanzado en su intervención que “en estos momentos” se está finalizando el Documento de Avance, en el que se definirá una primera hipótesis de modelo territorial.

En materia de Ordenación del Territorio, “se duplican” las ayudas a municipios para la adaptación y elaboración de su planeamiento urbanístico, con una dotación de 500.000 euros. En este apartado, destaca el desarrollo de una aplicación de Registro de Planeamiento



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Urbanístico, que permitirá a cualquier persona consultar los planes urbanísticos, evitando que tengan que acudir físicamente al ayuntamiento correspondiente o a la Diputación.

## ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES

Por su parte, el departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales contará con un presupuesto de 56.461.000 euros, un 21,71% más que en 2017. La cuantía servirá principalmente para “levantar la persiana” de la Administración foral, ofreciendo “más y mejores servicios a la ciudadanía, por un lado, y a los ayuntamientos, por otro”, según ha resumido su titular Ibone Bengoetxea.

Una de las partidas “que más crecerá” será la destinada a archivo, seguridad y tratamiento de la información cuyo programa pasa de los 950.000 euros de 2017 a 1.925.000 euros de 2018. En este montante se incluye la adquisición de un robot elevador para el archivo administrativo de Ganguren por un importe de 550.000 euros.

La Diputación ha cifrado en “17,5 millones de euros” el esfuerzo por modernizar la administración foral, contemplando la implantación del sistema BAT (Bizkaiko Azpiegitura Teknologia) que incluye, entre otras cosas, la sede electrónica, el gestor de entradas, el gestor documental, el motor de tramitación y el archivo electrónico.

El área que dirige Bengoetxea hará este año un esfuerzo para renovar el parque móvil de la Diputación. Invertirá 962.000 euros en adquirir 32 nuevos vehículos todoterreno; 340.000 euros en un camión cisterna del servicio de bomberos; y otros 123.000 euros se dirigirán a adecuar dos vehículos “Unimog”.

La diputada ha hecho hincapié también en el esfuerzo por modernizar las instalaciones de los servicios de emergencia. Así, en 2018, se iniciarán las obras de construcción del parque de bomberos de Zalla (900.000 euros), la redacción del proyecto del parque de Arratzu (60.000 euros) y la puesta en marcha de un Centro Integral de Gestión de Emergencias (240.000 euros). Habrá otros “175.000 euros” para diversas dotaciones y obras de mejora en otros centros de bomberos.

Asimismo, la Diputación seguirá dando soporte a los municipios de Bizkaia. Para ello se dotará con 4.535.000 euros a la Fundación Biscaytik. Además, “se mantendrán” las partidas destinadas a apoyar el saneamiento de los municipios (750.000 euros) y la destinada a subvenciones para infraestructuras en las localidades pequeñas (2 millones), pese a que se prevé que la situación financiera de los municipios “mejore” en 2018.

Bengoetxea se ha referido también al capítulo I de toda la Diputación (Personal) cuya masa salarial subirá “un 2,81%” hasta situarse en “203,2 millones de euros”. En este apartado, Bengoetxea ha anunciado que en este último trimestre se aprobará la segunda OPE de 2017, y, para el año próximo, la Diputación prevé sacar otra oferta pública de empleo.

A pregunta de Podemos Bizkaia y en una comparecencia anterior, la diputada ha informado que se ha ejecutado ya el “63,5%” del presupuesto de 2017 incluido en el departamento de Administración Públicas y Relaciones Institucionales.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## MAÑANA, ULTIMA JORNADA INFORMATIVA

Las comisiones informativas presupuestarias terminarán mañana viernes. Tras las mismas, la Mesa del parlamento vizcaíno establecerá la semana próxima el periodo de presentación de enmiendas (15 días). Tras su análisis se convocará una primera sesión plenaria en Gernika para debatir las enmiendas a la totalidad. Después de este pleno, y llegado el caso, se debatirían las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite parlamentario de las cuentas de Bizkaia finalizaría a finales de diciembre con un nuevo pleno, que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por la Comisión de Economía y Hacienda.